2017-9-6

**“MATERIAL DIDAKTIKOEI ETA CURRICULUMA GARATZEKO BALIABIDEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA” IZENEKO EBAZPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BALORAZIOA**

Guraso Elkarte agurgarriak:

“Material didaktikoei eta curriculuma garatzeko baliabideei laguntzeko programa” izeneko ebazpena argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak pasa den ikasturtearen bukaeran. Hasi berri den 2017-2018 ikasturteko material kurrikularren finantzazioa arautzen du ebazpen honek.

Horrela finantziatuko dira ikasturte honetarako ikastetxeek aukeratzen dituzten material kurrikularrak:

Lehen Hezkuntza

-1. eta 2. mailak: Hezkuntza sailak 36 € emango ditu ikasleko eta **familiak 27 €**.

-3. eta 4. mailak: Hezkuntza sailak 36 € emango ditu ikasleko eta **familiak 30 €.**

-5. eta 6. mailak: Hezkuntza sailak 36 € emango ditu ikasleko eta **familiak 31 €.**

Bigarren Hezkuntza

-1. maila: Hezkuntza sailak 109 € emango ditu ikasleko eta **familiak 41 €**.

-2. maila: Hezkuntza sailak 109 € emango ditu ikasleko eta **familiak 45 €**.

**Nobedadeak:**

-Programa honen helburua da material kurrikular inprimatuekin batera material digitalen sorkuntza eta erabilera sustatzea.

-Ikastetxe bakoitzeko Koordinazio Batzorde Pedagogikoari dagokio erabiliko diren material didaktiko eta baliabideak aukeratzea (liburuak, ikastetxeak egindako materialak, lizentzia digitalak, eta abar).

-OOG-ak onartu behar du Koordinazio Batzorde Pedagogiko horrek egindako proposamena.

-Beharrezkoak diren mailetan erabili ahal izango dira Hezkuntza sailaren eta familien aportazioak. Esaterako, pasa den ikasturtean LH-ko 1. 2. 5. eta 6. mailetako materialak berritu ziren, baita DBHko 1. eta 2. mailakoak; ondorioz, LH-ko 3. eta 4. mailetara diru gehiago zuzentzea erabaki dezake ikastetxeak.

-Ebazpenak jasotzen dituen familientzako kuotak igotzea adostu dezake OOG-ak.

-Jaso duen dirua zertan gastatu duen esan beharko dio ikastetxeak Hezkuntza sailari. Ez badu egiten, datorren urteko ekarpena galduko du.

-Hezkuntza sailak finantzazio berbera mantentzeko asmoa dauka datozen 3 ikasturteetan, hori dela eta, 3 urterako planifikazioa egiteko aukera dauka ikastetxeak. Hau da, hezkuntza-komunitateak 3 urterako plana adosteko aukera dauka.

EHIGE Gurasoen Elkartea | Ronda, 27 1. Ezk. | 48005 Bilbao | T. 94 416 93 60 | www.ehige.eus

<u>**Horrela baloratzen dugu ebazpen hau:**</u>

**Positibotzat jotzen dugu Hezkuntza sailak unibertsaltasunaren irizpidea mantendu izana** beti eskatu izan dugun bezala eta ondo ikusten dugu ere OOGak erabaki ahalmena izatea ikastetxeak jasotzen duen diru-kopurua maila desberdinen artean egokien ikusten duen moduan banatzeko.

Hala ere, Programak ez ditu gailuak barne hartzen (ezinbestekoak baliabide digitalak erabiltzeko). **Gure ustez gailuak erosteko irizpide unibertsala erabili behar da ere eta Programak barne hartu beharko lituzke.**

Zentzu honetan**, ezinbestekoa da ikastetxeek Hezkuntza sailari jakinaraztea zertan gastatu duten jasotako dirua** bi arrazoiengatik: aurrekontua nahiko den edo datorren ikasturtera begira aurrekontu handiagoa eskatu behar dugun jakin ahal izango dugu, eta informazio hori igortzen ez duen ikastetxeak ez du dirurik jasoko datorren ikasturtean.

Azkenik, familien kuota igotzeko aukera ematen du ebazpenak, ikastetxeko Pedagogia Batzordeak hala proposatuta OOGak onartzen baldin badu. <u>**Irizpide orokor bezala ezin da onartu familien kuota igotzea**</u>**. Kuota hori igotzea justifikatzen duen ezohiko arrazoirik baldin badago, beti ere berrikuntzarekin lotua egongo da.**

**Familien kuota igotzekotan gure ustez azpiko koadroan "Marjina" zutabean agertzen den kopurua izango da muga** (Familiek Programari egin behar dioten ekarpena eta ikasmaterialetarako beken arteko aldea da).

| | **Ekarpenak Programara** | **Ikasmaterialetarako bekak** | |
|---|---|---|---|
| | Familia | Ikaslea | Marjina |
| LH1-LH2 | 27 € | 38 € | 11 € |
| LH3-LH4 | 30 € | 50 € | 20 € |
| LH5-LH6 | 31 € | 50 € | 19 € |
| DBH1 | 41 € | 60 € | 19 € |
| DBH2 | 45 € | 60 € | 15 € |

Informazio gehiago behar baduzue jar zaitezte harremanetan zuen federazioarekin.

Agur beroa.

**Ebazpena atxikitzen dizuegu.*

**INFORMACIÓN Y VALORACIÓN DE LA RESOLUCIÓN "PROGRAMA DE APOYO DE MATERIALES DIDÁCTICOS Y RECURSOS DE DESARROLLO CURRICULAR"**

Estimadas AMPAs:

El Departamento de Educación del Gobierno vasco publicó a finales del curso pasado la resolución denominada "Programa de apoyo de materiales didácticos y recursos de desarrollo curricular", que regula la financiación de los materiales curriculares del curso 2017-2018 que acaba de empezar.

De acuerdo con la resolución, los materiales curriculares elegidos por el centro educativo para este curso se financiarán de la siguiente forma:

Educación Primaria

-1º y 2º: el Departamento de Educación aportará 36 euros por alumna/o y **la familia 27 €.**

-3º y 4º: el Departamento aportará 36 euros por alumna/o y **la familia 30 €.**

-5º y 6º: el Departamento aportará 36 euros por alumna/o y **la familia 31 €.**

Educación Secundaria

-1er curso: el Departamento aportará 109 euros por alumna/o y **la familia 41 €.**

-2º curso: el Departamento aportará 109 euros por alumna/o y **la familia 45 €.**

**Novedades:**

-El objetivo de este programa es promover la elaboración y el uso creciente de materiales digitales en convivencia con el uso de materiales impresos.

-La Comisión de Coordinación Pedagógica del centro será la encargada de determinar los materiales y recursos a utilizar en el centro (libros, material elaborado por el centro, licencias digitales, etc.)

-El OMR deberá aprobar la propuesta de la Comisión de Coordinación Pedagógica.

-Las aportaciones del Departamento y las familias podrán ser utilizadas en los cursos en los que sean necesarias. Como el curso pasado se han renovado los materiales curriculares de 1º, 2º, 5º y 6º de primaria y 1º y 2º de secundaria, el centro puede decidir destinar más recursos a 3º y 4º de primaria, por ejemplo.

-El OMR puede aprobar cuotas para las familias superiores a las establecidas en la Resolución.

-El centro deberá informar al Departamento del uso que se haya dado a la dotación económica recibida y, en caso de no hacerlo, se le suprimirá la aportación del siguiente curso.

-El Departamento de Educación tiene intención de mantener la misma financiación durante los próximos tres cursos, por lo que el centro puede hacer una planificación a 3 años. Es decir, la comunidad educativa puede acordar un plan a 3 años.

**Nuestra valoración de la Resolución:**

**Valoramos de forma positiva que el Departamento de Educación haya mantenido el criterio de universalidad** que hemos defendido en todo momento y nos parece asimismo positivo que quede en manos del OMR la decisión de distribuir los recursos económicos que reciba.

No obstante, el programa no contempla la adquisición de dispositivos (indispensables para la utilización de recursos digitales). **Entendemos que los dispositivos se deben adquirir con criterio universal y que el Programa debe incluir ambos aspectos**.

En este sentido, **es imprescindible que los centros informen al Departamento del destino de las aportaciones económicas recibidas** por dos razones: solo así sabremos si el presupuesto total del programa es suficiente o tenemos que solicitar un incremento, los centros que no informen al Departamento perderán las ayudas del siguiente curso.

Por último, la resolución contempla la posibilidad de que la aportación de las familias sea superior a la que el Programa estipula, si así lo plantea la Comisión Pedagógica y lo aprueba el OMR. **Como criterio general no se debería aceptar que la cuota superior a la que marca el Programa, a no ser que exista alguna razón excepcional que pueda justificar dicho incremento, siempre ligada a la puesta en marcha de proyectos de innovación.**

**En el caso de que se incremente la cuota de las familias, creemos que el tope debería ser el que aparece en la columna "Margen" del cuadro adjunto** (es la diferencia que existe entre la aportación de las familias a este Programa y el importe que reciben las familias becarias en concepto de material escolar).

| | **Aportaciones al Programa** | **Becas de material escolar** | |
|---|---|---|---|
| | Familia | Alumnado | Margen |
| LH1-LH2 | 27 € | 38 € | 11 € |
| LH3-LH4 | 30 € | 50 € | 20 € |
| LH5-LH6 | 31 € | 50 € | 19 € |
| DBH1 | 41 € | 60 € | 19 € |
| DBH2 | 45 € | 60 € | 15 € |

Si necesitáis más información poneros en contacto con vuestra federación.

Un saludo.

**Os adjuntamos la resolución que regula la financiación de este programa.*